

Izpurako Kazeta / Journal d'Ispoure

Parution Bi-annuelle

Lors de notre campagne électorale, nous nous étions engagés à vous tenir informés des actions entreprises pour notre Commune. Cet engagement sera possible grâce à la mise en place d'un journal municipal bi-annuel, du maintien du Bulletin Communal annuel et du lancement du site internet www.ispoure.fr. Ces trois outils de communication regrouperont toutes les informations concernant le fonctionnement de notre commune, les suivis des projets, les démarches administratives...

Voici donc le premier exemplaire de votre journal communal.

Présentation de l'équipe municipale

Le Maire : BARETS Claude

Les Adjoints : IRIART Mathieu, 1^{er} adjoint : Travaux et Urbanisme ; LARREGAIN Christine, 2^{ème} adjointe : Affaires Sociales et Scolaires ; CROCHET Gilles, 3^{ème} adjoint : Finances ; RECA Elorri, 4^{ème} adjointe : Environnement, Jeunesse, Culture et Communication

Les Conseillers : BOUTEILLER Pascal, BRENON Martine, COUBEL Laurence, DELAVALD Patrick, DOS SANTOS Aïda, DUCROTÉ Gin, DUJOL Gilbert, HARDY Steven, RAMALHO Jacinto, SENDERAIN Cécile.

Les Commissions

Commission Petits Travaux : BARETS Claude, IRIART Mathieu, DELAVALD Patrick : suivi de tous les petits travaux à effectuer sur la commune avec l'aide des employés municipaux.

Commission d'Appel d'Offres : BARETS Claude, IRIART Mathieu, CROCHET Gilles, RECA Elorri (titulaires) ; HARDY Steven, DELAVALD Patrick, BRENON Martine (suppléants). suivi des appels d'offres de tous les projets de la commune.

Commission Culture : RECA Elorri, LARREGAIN Christine, HARDY Steven, DUCROTÉ Gin, DUJOL Gilbert et DELAVALD Patrick (gestion des clés de la salle Faustin) : gestion de la salle Faustin et des associations, mise en place d'animation en collaboration avec les associations.

Commission Communication : RECA Elorri, LARREGAIN Christine, BRENON Martine, DELAVALD Patrick, RAMALHO Jacinto et CROCHET Gilles : Suivi du site internet, du journal municipal et du bulletin municipal.

Commission Environnement : RECA Elorri, IRIART Mathieu, BOUTEILLER Pascal, BRENON Martine, DUJOL Gilbert, SENDERAIN Cécile : mettre au centre de tous les projets communaux la réflexion environnementale (voirie, urbanisme, énergie, agriculture...).

Commission Jeunesse : RECA Elorri, IRIART Mathieu, DUJOL Gilbert, HARDY Steven. Commission participative avec les 18-35ans volontaires pour construire l'avenir de la commune et réfléchir sur les grands projets à long terme.

Commission Centre communal d'Action Sociale : 6 conseillers municipaux : LARREGAIN Christine, DELAVALD Patrick, BRENON Martine, CROCHET Gilles, DOS SANTOS Aïda, DUCROTÉ Gin. 6 membres de la société civile : MAÏTIA Jean-Pierre, LARREGAIN François, AHAMENDABURU Cécile, ALDACOURROU Philippe, ETCHART Jeanine, LALAURETTE Monique : suivi des problèmes sociaux rencontrés par nos concitoyens, accompagnement, écoute, aide financière...

Les projets d'urbanisme et de voirie.

Carrefour « Alhastia »

L'immeuble délabré et insalubre à l'entrée d'Ispoure, sur la gauche en bord de la route départementale après la traversée du pont depuis St- Jean Pied de Port, a fait l'objet d'une étude structure et fait désormais l'objet d'une étude de faisabilité quant aux possibilités de rénovation tout en cherchant l'amélioration de la sécurité du carrefour. Une partie du complexe appartient à la Commune, le reste à des personnes privées. Cette situation rendra difficile et long le projet de remise en état du site, mais la Commune est accompagnée par la CAPB¹, l'EPFL² et le CAUE³ dans la réalisation des différentes démarches.

Adressage

La Commune d'Ispoure, à l'instar de tous les villages du Pays Basque intérieur, sera munie de noms de rues, un numéro étant attribué ensuite à chaque maison. Ceci facilitera grandement l'intervention des secours notamment. Le choix du nom des rues a été arrêté lors du précédent mandat ; les panneaux signalétiques ont été tout récemment commandés et pourront fleurir au bord de nos routes en 2021.

Prochainement vous recevrez un courrier vous informant de votre nouvelle adresse.

Réfection de la route d'Itzaldi à partir de novembre

Si la Commune détient près de 30 km de voies communales et un peu plus de 15 km de chemins ruraux, le plafond annuel d'aide départementale ne permet guère de rénover plus de 1 voire 1,5 km de voirie chaque année.

Aussi nous allons procéder à la rénovation d'environ 1,2 km de voirie cette année, tronçon situé sur la route d'Itzaldi entre la dernière maison du quartier Mitxadoy jusqu'à la croix d'Itzaldi, en contrebas du chai Brana.

Rénovation de la fosse à sédiments du lotissement Bordda et empiérement de l'accès

Nous avons été sollicités par les riverains du lotissement Bordda afin d'étudier les possibilités d'améliorer le fonctionnement de la fosse à sédiments. Après étude par la CAPB à notre demande, celle-ci a estimé que cet ouvrage relevait de la compétence communale et non intercommunale, aussi nous allons très prochainement étudier auprès d'un professionnel selon quelle modalités l'ouvrage peut être sécurisé et son accès empiérement.

Centre technique municipal

A partir de fin octobre sera mise en place avec l'aide du CAUE une réflexion autour du local des employés municipaux. Le local actuel est exigü et ne permet pas de rentrer à l'abri les 2 véhicules (camion et tracteur) ni de nettoyer le matériel dans de bonnes conditions. Nous étudierons la possibilité d'agrandir le local ou éventuellement d'en construire un nouveau plus fonctionnel afin d'améliorer les conditions de travail de nos employés communaux.

L'action sociale:

Le CCAS⁴ : quatre interventions ont déjà été réalisées :

- deux accompagnements vers les services compétents de personnes âgées et seuls.
- intervention avec aide financière sur une famille en difficulté ;
- accompagnement vers les services compétents d'une famille en difficulté

Un mot sur la rentrée scolaire : malgré le contexte actuel, la rentrée scolaire s'est bien passée avec un mobilier neuf (changement des tables et des chaises).

Si certains d'entre vous sont intéressés par l'ancien mobilier, nous sommes prêts à le céder à un tout petit prix.

Travaux de mise en état effectués selon les besoins (peintures des salles de classe, jeux, toilettes, etc.....).

Izpurako Kazeta / Journal d'Ispoure

A certains moments, pour des raisons sanitaires, nous avons dû faire appel à Paxkal traiteur pour les repas à la cantine. Il y a une baisse d'effectif (32 élèves, deux institutrices à plein temps et une institutrice à mi temps) due à un grand nombre de départs en 6ème . Les classes présentes sont le CP et le CE1.

Info à l'attention de nos aînés : le service Atxiki à Cambo les Bains mettra en place sur Ispoure, à partir de Janvier 2021, pour les personnes de plus de 60 ans, des actions de prévention à la perte de l'autonomie. L'objectif principal est la lutte contre le vieillissement psycho-affectif, physique et psycho-social. Différents ateliers vous sont proposés. Ces ateliers seront gérés par des professionnels et gratuits.

La feuille d'inscription vous est jointe à ce journal, nous vous demandons de la déposer remplie à la mairie.

Cette année, exceptionnellement, nous n'avons pu mettre en place, la sortie des aînés. Nous espérons pouvoir faire le repas de fin d'année si les circonstances s'y prêtent.

Lancement du site internet cet automne

www.ispoure.fr

Depuis quelques mois, les membres de la commission « communication » avec l'aide de l'APGL64⁵, se réunissent régulièrement pour réaliser la trame du site internet. Une première partie avait déjà été réalisée par l'ancienne équipe municipale.

Vous y trouverez toutes les informations nécessaires à votre vie de citoyens. Cet outil de communication se veut simple, indispensable et collé au présent, son évolution sera permanente.

Nous avons fait notre possible pour vérifier les informations que nous vous transmettons. Mais, il est toujours possible que vous y releviez des inexactitudes. Dans ce cas, nous vous remercions de bien vouloir nous les signaler afin qu'elles soient rectifiées.

Dates clés de fin d'année

Recensement Citoyen : Les jeunes garçons et jeunes filles ayant atteint l'âge de 16 ans doivent être recensés auprès de la Direction du Service National. *Le recensement doit être effectué dans les 3 mois suivants les 16 ans.*

Le recensement citoyen s'effectue : **soit en ligne <https://www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/F870> soit directement en mairie**, muni de la carte d'identité et du livret de famille.

Ramassage des encombrants le 16 décembre : Dorénavant les déchets verts ne seront plus pris en charge par la mairie, n'étant pas considérés comme des encombrants.

Départ de Marie-Agnès HARISPE, Présentation d'Hélène AGUERGARAY et nouveaux horaires de la Mairie

Le 2 octobre nous avons fêté le départ à la retraite de Marie-Agnès HARISPE secrétaire émérite de notre commune depuis 38 ans. Les maires qui se sont succédés durant sa longue carrière ont retracé son parcours relevant notamment l'importante évolution de son travail, notamment avec l'émergence de l'outil informatique.

Cette manifestation a également été l'occasion de présenter Hélène AGUERGARAY qui a été choisie pour la remplacer.

Une secrétaire de mairie partage tous les événements – heureux et malheureux – des citoyens de notre commune et ceci constitue une véritable source de richesse professionnelle et personnelle.

Nous souhaitons donc une belle carrière à Hélène et une longue et sereine retraite à Marie-Agnès.

Les nouveaux horaires d'accueil de la mairie

Lundi 9h00 12h30 et 13h30 17h30

Mardi 13h30 17h30

Mercredi 9h00 12h

Jeudi 13h30 17h30

Vendredi 9h00 12h30

1:Communauté d'Agglomération du Pays Basque

2 :Établissement Public Foncier Local Pays Basque

3 :Conseils d'Architecture, d'Urbanisme et de l'Environnement

4 :Centre communal d'action sociale

5 :Agence publique de gestion locale

Izpurako Kazeta / Journal d'Ispoure

Urtean bi aldiz agertzen den kazeta

Gure hauteskunde kanpaina denboran hitz eman genizuen herriaren alde eginen genituen egintzen jakinean atxikitzea. Egintza horien berri ematen ahalko dugu sortu dugun herriko kazetaren bidez (urtean bi aldiz argitaratuko dugu), atxiki dugun herriko berripaperaren bidez eta abian ezarri dugun webgunearen bidez: www.ispoure.fr. Hiru komunikazio-tresna horietan bilduko ditugu gure herriaren funtzionamenduari buruzko argibide guziak, proiektuen jarraipena, urraspide administratiboak... Hona beraz zuen herriko kazetaren lehenbiziko zenbakia.

Herriko Etxeko taldea

Auzapeza: BARETS Claude

Axuantak: IRIART Mathieu, 1. axuanta: Obrak eta Hirigintza;

LARREGAIN Christine, 2. axuanta: Jendarte eta Eskola Gaiak;

CROCHET Gilles, 3. axuanta: Finantzak;

RECA Elorri, 4. axuanta: Ingurumena, Gazteria, Kultura eta Komunikazioa.

Kontseilariak: BOUTEILLER Pascal, BRENON Martine, COUBEL Laurence, DELAVALAUD Patrick, DOS SANTOS Aïda, DUCROTÉ Gin, DUJOL Gilbert, HARDY Steven, RAMALHO Jacinto, SENDERAIN Cécile.

Batzordeak xeheka

Obra Ttipien Batzordea:

BARETS Claude, IRIART Mathieu, DELAVALAUD Patrick: herrian egitekoak diren obra ttipi guzien jarraipena herriko langileen laguntzarekin.

Eskaintza-deialdien Batzordea:

BARETS Claude, IRIART Mathieu, CROCHET Gilles, RECA Elorri (tituludunak); HARDY Steven, DELAVALAUD Patrick, BRENON Martine (ordezkoak): herriko proiektu guzien eskaintza-deialdien jarraipena.

Kultura Batzordea:

RECA Elorri, LARREGAIN Christine, HARDY Steven, DUCROTÉ Gin, DUJOL Gilbert eta DELAVALAUD Patrick (Faustin Bentaberri gelako giltzen kudeaketa): Faustin Bentaberri gelaren eta elkartearen kudeaketa; animazioen plantan ezartzea elkarteekin partaidetzan.

Komunikazio Batzordea:

RECA Elorri, LARREGAIN Christine, BRENON Martine, DELAVALAUD Patrick, RAMALHO Jacinto eta CROCHET Gilles: webgunearen, herriko kazetaren eta berripaperaren jarraipena.

Ingurumen Batzordea:

RECA Elorri, IRIART Mathieu, BOUTEILLER Pascal, BRENON Martine, DUJOL Gilbert, SENDERAIN Cécile: ingurumenari buruzko gogoeta (errepideak, hirigintza, energia, laborantza...) herriko proiektu guzien erdian ezartzea.

Gazteria Batzordea: RECA Elorri, IRIART Mathieu, DUJOL Gilbert, HARDY Steven. Partaidetza-batzordea da, boluntario diren 18-35 urtekoekin herriaren geroa eraikitze eta epe luzeko proiektu nagusiez gogoetatzeko.

Gizarte Ekintzako Udal Zentroari doakion Batzordea: Herriko 6 kontseilari: LARREGAIN Christine, DELAVALAUD Patrick, BRENON Martine, CROCHET Gilles, DOS SANTOS Aïda, DUCROTÉ Gin. Jendarte zibileko 6 pertsona: MAÏTIA Jean-Pierre, LARREGAIN François, AHAMENDABURU Cécile, ALDACOURROU Philippe, ETCHART Jeanine, LALAURETTE Monique: gure herrikideen arazo sozialen jarraipena, laguntzea, entzutea, dirulaguntzak...

Hirigintza eta errepide proiektuak.

"Alhastia" bidegurutzeta

Izpuran sartzean, errepide bazterrean ezker Donibane Garazitik jitean den zubia iragan ondoan, bada eraikin bat andeatua eta ez sanoa; egitura ikertu dugu eta egingarritasun ikerketa egin ikusteko zaharberritu ote daitekeen eta bidegurutzetaren segurtasuna hobetu. Gunearen parte bat herriarena da eta bestea pribatu batzuen. Egoera horrengatik gunearen konpontzeko proiektua zaila da eta luzatuko da, baina Euskal Elkargoak¹, LTEPk² eta AHIKk³ Izpurako Herriko Etxea laguntzen dute urraspideen eramaten.

Helbideratzea

Izpurako herriak, Ipar Euskal Herriko beste herrien gisan, karriken izenak ukanen ditu eta ondotik etxe bakoitzak zenbaki bat ere ukanen du. Horrela sokorriak aiseago heltzen ahalko dira. Karriken izenak aitzineko agintaldian finkatu ziren, eta bide-seinaleak berrikitan manatu ditugu; bide bazterretan ezarriko ditugu 2021ean.

Gutun batean errezebituko duzue zuen helbide berria.

Itzalgiko errepidearen berritzea azarotik goiti

Izpuran bada 30 km herriko bide eta 15 km baserri-bide, baina Departamenduak 1 km edo 1,5 km bide berritzeko laguntzak baizik ez ditzake eman urte guzietan.

Beraz, aurtan 1,2 km errepide berrituko dugu: Itzalgiko errepideko zati bat, Mitxadoi auzoko azken etxearen eta Itzalgiko gurutzetaren artean, Brana xaiaren beheko aldean.

Bordda etxe-multzoko sedimentazio-hobiaren berritzea eta sartzetaren harriztatzea

Bordda etxe-multzoko egoiliarrek galdatu digute sedimentazio-hobiaren funtzionamendua hobetzeko posibilitateak aztertzea. Guk hala galdaturik, Euskal Elkargoak ikerketa egin du eta herriaren eskumenekoa zela estimatu, eta ez herriartearena, beraz, laster galdeginen diogu profesional bati nola indartu hobiko segurtasun neurriak eta hara sartzeko bidea nola harriztatu.

Herriko zentro teknikoa

Urri bukaeratik goiti, AHIKren laguntzarekin herriko langileen egoitzari buruz gogoeta bat abiatuko dugu. Oraingo egoitza ttipia da eta ezin dira 2 ibilgailuak sartu (kamioia eta traktorea), ez eta materiala baldintza onetan garbitu. Ikertuko dugu egoitzaren handitzeko manera edo beharbada egoitza berri baten eraikitzeo manera, funtzionalagoa, gure herriko langileen lan baldintzak hobetzeko gisan.

Jendarte ekintza:

GEUZ⁴: lau aldiz esku hartu du:

- bi aldiz bakarrik ziren adineko jendeak lagundu ditu zerbitzu eskudunetara;

- zailtasunetan zen familia bati dirulaguntza bat eman dio;

- zailtasunetan zen familia bat zerbitzu eskudunetara lagundu du.

Hitz bat eskola sartzetaz: osasun-egoeratik ere eskola sartzeta ontsa iragan da, mahai eta kadira berriekin.

Zuetariko batzuk lehengo mubleez interesatuak balira, merke-merke saltzeko prest gara.

Izpurako Kazeta / Journal d'Ispoure

Behar ziren antolaketa obrak egin dira: ikasgelen tindatzea, jokoak, komunak, etab.

Aldika, osasun arrazoiengatik, Paxkal janari-prestatzaileari dei egin diogu kantineko bazkariak kozinatzen. Ikasle kopurua apaldu da (32 ikasle, bi irakasle denbora osoz eta beste bat denbora erdiz) ikasle franko 6.era joan baitira. Aurten eskolan ditugun mailak: CP eta CE1.

Argibide bat gure adinekoentzat: Kanboko Atxiki zerbitzuak 2021eko urtariletik goiti Izpuran plantan ezarriko ditu autonomia galtzearen prebentzio ekintzak 60 urtez goitiko prentsonentzat. Helburu nagusia zahartze psiko-afektibo, fisiko eta psiko-sozialaren kontrako borroka da. Lantegi bat baino gehiago proposatuak zaizkizue. Lantegi horiek profesionalek dituzte kudeatzen eta dohainik dira.

Izen emate fitxa kazeta honi atxikirik atzemanen duzue, bete ondoan Herriko etxean utz ezazue.

Aurten, usaian ez bezala, ezin izan dugu adinekoen ateraldia antolatu. Osagarri-egoerak uzten bagaitu, urte bukaerako apairua egitea espero dugu.

Webgunearen abiatzea larrazkenean www.ispoure.fr

Badu zenbait hilabete Komunikazio Batzordeko kideak, APGL64-ren⁵ laguntzarekin, erregulariki biltzen direla webgunearen hezurduraren plantan ezartzeko. Herriko Etxeko aitzineko taldeak jadanik parte bat apailatu zuen.

Zuen herritar bizirako behar dituzuen argibide guztiak atzemanen dituzue webgunean. Komunikazioa tresna hori sinplea izanen da, beharrezkoa, orainari atxikia eta etengabe eguneratuko da.

Egin ahala egiten dugu ematen dizkizuegun argibideak egiaztatzen. Baina gerta daiteke hutsak atzeman ditzazuen. Orduan, milesker horien jakinaraztea; zuzenduko ditugu.

Urte bukaerako egun inportanteak

Biztanle kontaketa: 16 urte bete dituzten neska eta mutiko gazteek erregistratu behar dute Zerbitzu Nazionalako Zuzendaritzan. *16 urte bete ondoko 3 hilabeteetan egin behar da.*

Herritar kontaketa egiten da: **edo <https://www.service-public.fr/particuliers/vosdroits/F870> webgunean edo Herriko Etxean; nortasun agiria eta familiako liburuxka erakutsi behar dira.**

Puska trabagarrien bilketa abenduaren 16an: Hemendik aitzina herriko Etxea ez da gehiago arduratuko hondarkin berdeez. Hondarkin berdeak ez dira hondarkin trabagarriak.

Marie-Agnès HARISPEren joatea.

Hélène AGUERGARAYren aurkezpena eta Herriko Etxeko tenore berriak

Urriaren 2an Marie-Agnès HARISPE erretretara joan zaigu, eta ospakizuna egin dugu. Bazuen 38 urte gure herriko idazkari trebatua zela. Bere lan ibilbide luzean egon diren auzapezek bere ibilbidea kontatu dute, sustut bere lana zenbat aldatu den bereziki informatika agertu delarik.

Ospakizun horren karietara Hélène AGUERGARAY aurkeztu dugu, hark baitu erretretadun gaztea ordezkatuko.

Herriko Etxeko idazkariak herritarren gertakari guztiak partekatzen ditu –atseginak eta damugarriak–, eta hori biziki aberasgarri da bai profesionalki bai pertsonalki.

Lan ibilbide ederra desiratzen diogu Hélèneri eta erretreta luzea eta jabala Marie-Agnèsi.

Herriko Etxearen irekitze tenore berriak

Asteleheneretan 9:00-12:30 eta 13:30-17:30

Astearteetan 13:30-17:30

Asteazkenetan 9:00-12:00

Ostegunetan 13:30-17:30

Ostiraletan 9:00-12:30

1 - Euskal Hirigune Elkargoa

2 Ipar Euskal Herriko Lurren Tokiko Erakunde Publikoa

3 Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Kontseiluak

4 Gizarte Ekintzako Udal Zentroa

5 Tokiko Kudeaketaren Agentzia Publikoa